

Zubi gaineko trukaketak (ipuina)



Koldo Amestoy
Ipuin kontalaria

Gure aitaxi etxeko haurren lagun handi eta konplize atsegina izan genuen betitik. Zerbait behar genuela, nonbait min genuela, guretako bat hemendik hara eramane behar zela eta, gure aitaxi beti hor zegoen. Behar orduan, laztan goxoa, aholku zuhurra, gidaritza segurra gogo onez eskaintzeko beti prest zegoen. Nik behintzat, ez nuen beste lagun fidagarri eta maitagarririk, gure aitaxiz besterik.

Herriko eskola ttikia bukatu ondoren, ikasketak hiriko eskolan abiatu behar nituela, joan eta etorriak egiteko, aitaxi nuen betiko garraiolari zintzoa. Bere auto zaharrean sartzen nintzen, errege bat bezala atzeko aulkietan eseri eta, tira aurrera !

Gauza bat aitortu behar dizut hala ere. Hau da, erritualarena... Astelehene goizero, hiri nagusira gindoazela, herri irteeran daukagun zubi ttiki gainean aitaxik autoa gelditzen zuen. Orduan, kotxetik atera behar nuen, eta hortxe eskatzen zidan "euskara" erreka bazter honetan uzteko, eta "frantsesa" beste aldean jaso eta eramateko. Eta nik, zintzo-zintzo bere agindua konplitzen nuen: nire hizkuntza hemen laga eta "frantsesa" hantxe hartu. Eta tira, aste guztirako frantsesez aritzera! Ostiral iluntzean, aldiz, eskolatik itzultzerakoan, zubi gaineko erritu bera alderantziz egiten genuen: erdara euskararekin trukatu eta, euskara gogo-mihietan, pozik eta harro herrian sartzen nintzen.

Egun batez, zoritxarrez, aitaxi zendu zitzaigun. Auzoko norbaitek, ez naiz gogoratzen zein izan zen, hiritik etxera ekarri ninduen eta ziztu bizian zubi gainetik iragan zen. Noski, delako hark ez zuenez errituala ezagutzen, zubi gaineko geldiunea ez genuen markatu. Eta ni, frantsesa ahoan etxeratu nintzen. Laster, konturatu nintzen, ez zela gure etxean, herrian eta eskualdean denetan frantsesa baizik entzuten, eta euskararik batere ez.

Behin, igande arratsalde batez, familiakoak loaldian zeudela, aitaxiren autoa harturik hiriko bidetik urrundu nintzen. Han nonbait biratu eta gure zubi gainean geratu nintzen. Hortxe bertan, frantsesa euskararekin aldatu nuen eta herrira itzuli nintzen, berehalaxe.



Geroztik, gure etxean eta herrian ere, euskara berriz bere lekua hartzen ari da, poliki-poliki... Eta entzuten da, geroz eta gehiago, denetan.

Orain, aitaxi gogoan, zubi erdian gelditzen naiz beti. Eta aldiro, autotik jaisten ere... Ez, ez dut gehiago euskara erreka ondoan uzten, baizik eta, herritik kanpo joateko, behar dudan beste mintzaira hura erreka bestaldean hartuta, euskararekin batera nire poltsan sarturik, aurrera noa!